

ARGIA SARIAK 2006 –XVII. edizioa-

Hauek dira 2006ko ARGIA SARIAK:

Sareko Argia saria: Gaztesarea.net

Denen artean aurtengo gure saria emateko bereizi dugun honek baditu gaztetasuna, ausardia eta kemena.

Euskarazko komunikabide digital honek badu alternatibo izan nahia eta denetaz eztabaidatzeko gogoia, sexuaz bezala politikaz edo kulturaz.

Badu kaleak ematen duen freskura eta badu umorea. Guztia, egunero txukun landutako web gune interesgarri batean.

Prentsa : Fermin Etxegoien, “Berria” egunkariko “Ekografiak” zutabeagatik.

Kazeta idatziek eguneroko gertakizunen alboan derrigorrezko osagarriak dituzte, bestelako kronikak, iritziak eta kritikak. ARGIA SARIA jaso duen gizonak oso ondo lantzen du horietako tarte bat.

Komunikatzaile ona da gizon hau, egunero demostratzen du. Ez du idatzizkoetan bakarrik egiten lan: ikus-entzunezkoetan ere ari da. Eta maisutasunez baliatzen du abantaila hori.

2006eko ARGIA SARIA merezi duen gizon honek prentsan telebistaz idazten du. Irakurleok beti eskertzen dugu “Berria” egunkarian telebistaz, telebistako programez eta pantailan ikusten ditugun gizon eta emakumeez egiten duen kritika.

Publizitatea: Bertsozale Elkarteak Txapelketa Nagusiarekin egindako kanpaina

PUBLIZITATEA ataleko ARGIA SARIA hilabeteetan luzatu den kanpaina bati ematea erabaki dugu. 2005ean zehar hitz errimatuz osatutako pilota baten inguruan, bertsogintza eta bertsolaritza modu adimentsuan publizitatzen ikusi dugu.

Bertso-pilotak punpaz-punpa Euskal Herri osoa kutsatu du. Publizitatea gainditzen zuen komunikazio kanpaina indartsua eragin du. Lekunberrin abiatuta, bertsoaren lurraldea Barakaldoko deserturaino zabaldu du. Lan handi horri esker, 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiak jaso du orain arte ezagutu duen oihartzunik handiena.

Telebista: Postdata saioa

Aurtengo TELEBISTA ataleko ARGIA SARIA, Euskal Telebistako saio bati emango diogu. Erreportaje laburrez osatuta dago saioa eta minutu urri horietan ikus-entzuleari kilima berezia eragitea lortzen du.

Elegantzia handiko kazetaritza eginez, irudia eta hitza –eta isiltasuna!- dotoreziaz erabiliz, gai bakoitzari dagokion erregistroa bilatzen eta aurkitzen dio.

Irratia: Maite Artola

Arratsaldean aktualitatearekin lotutako saio erakargarria gidatzen du.

Europako hiriburuetatik bidaltzen zizkigun kronikek eman zioten izena, eta orain talentu handiz biltzen ditu bere emankizunean Europako eta Euskal Herriko gertakizunen albisteak, kronikak eta iritziak.

Ahots eta mintzatzeko modu gozoak ditu, eta besteen ahotsekiko errespetuz jokatzeko entzuten dugu arratsaldero.

Merezimenduzko Saria: *Hik Hasi* erakundea

Duela 10 urte sortu eta urte hauetan Euskal Herriko irakaskuntza munduan erreferente izatera iritsi da.

Hilero etortzen zaigu eskuetara irakaskuntza eta pedagogia alorreko albiste, azterketa, hausnarketa eta eztabaida mamitsuenekin.

Gainera, informazio iturri hori beste hainbeste produktu eta proiektuz aberastu dute.